



## Disolbitze Prentsaurrekoa

Euskal Herriak fase politiko bat berri ezagutzen du. Fase honi heltzeko, Ezker Abertzalearen erakundeetan egokipen urrats ezberdinak egon dira azkeneko hilabeteetan. Horien artean gogoratuko duzue, Segiren desagerpena eta Askatasunaren disolbatzea. Idatzi labur honetan, logika honetan ematekoa dugun azkeneko urratsaren berri eman nahi dizuegu : Batasunaren disoluzioarena.

### **2001-2012 : Hamaika urteetako ibilbide oparoa.**

2001ean sortu genuen Batasuna. Lizarra/Garaziren garaian Ezker Abertzaleak erakunde nazionalak eratzeko hartu zuen norabidean urrats inportantea suposatu zuen Batasunaren sorrerak.

Hauxe zen 2001ean Batasuna sortzeko hartu genuen erabakiaren zentzu nagusia : nazio eraikuntzaren aldeko estrategiaren gauzapenak, ezinbestean nazio mailako egituratze bat eskatzen du. Alabaina, Euskal Herriak ezagutzen dituen errealitate ezberdinetatik abiatuta, lurralde guzietan egokitutako strategi nazional baten eraikitzeak elkar-ezagutza eta nazio mailan irakurketa politikoak amankomunatzea eskatzen dituela sinetsiak ginen eta gaude oraindik.

Batasunaren eratzeak Iparraldeko mugimendu abertzalearen azken hamarkadaren bilakaera markatu du. Momentu gogorrean sortu ginen : Lizarra/Garazi prozesuaren hausturaren biharamunetan, eta aitortu beharra dugu hainbat sektoreetatik zatiketa eragitea leporatu izan zitzaigula. Bainan dudarik gabe, nehork ez du sekulan gure engaiamendu militantearen sakontasun eta zintzotasuna kolakan jarri. Halaber, borrokaren balioa eta proiektu ezkertiar koherente baten defenditzea izan dira gure jarduera militantearen ipar-orratza. Hortara, gora-behera guzietan ginetik, mugimendu abertzalean elkarlan giroa berreskuratzea izan da gure arrangura nagusietariko bat. Helburu honi begira, beste partaideekin batera, erreferente politiko amankomun berri baten finkatzeko eginahalak egin ditugu azken urteetan. Horrela sortu da EH BAI.

Zazpiak Bat gure proiektu abertzalearen gauzatze bidean, Ipar/Hego zatiketa gainditu dezakeen eraikuntza nazionalaren aldeko strategi eraginkor baten beharra etengabe defenditu eta gauzatze zereginetan ibili gara. Gisan berean, Iparraldeari begira eraman ditugun ekimenak ugariak izan dira eta gure uste apalean egin ditugun ekarpen ezberdinen artean, 2007an Autonomia aldarrikapen historikoaren ikurra berriz altxatzea eta beste abertzale sentsibilitateekin batera honen inguruko sentsibilizazio lanak eramatea kokatzen dugu.

Hamar urte eta gero, Iparraldean daukagun panorama politikoak ez du deus ikustekorik. Mugimendu abertzalearen aldarrikapenek gizarte zabalean egin duten bidez ohartzeko eztabaida instituzionala zer tokirat iritsi den begiratzea nahikoa da. Bultzatu nahi izan dugun Euskal Herri osoari begirako ikuspegiari dagokionean, Iparraldeak eta Hegoaldeak espazio politiko amankomuna osatzen dutenaren

pertzepzioa mugimendu abertzaletik haratuagoko eremuetan ere zabaldu dela deritzogu.

Euskal Herriaren eraikuntzan bere ekarpena egin du beraz Batasunak. Eta horretarako frantses estatuaren partetik erantzun ederra pairatu behar izan dugu. Izan ere, gure ibilbidearen ber-gogorapen labur honetan, nola ahaztu Iparraldean berean jasan ditugun kolpe errepresibo gogorak : polizi operazio ezberdinak, militanteen atxilotura ugariak, presondegiratze andana, azkeneko gertakaria arte : Auroren espainiaratzea.

### **Fase politiko berriak tresna berriak eskatzen ditu.**

Azkeneko negoziazio prozesuaren ondotik, Ezker Abertzaleak eztabaida sakona eraman du eta lan-eskema berria osatu du "Zutik Euskal Herria" ebazpenean formalizatua izan dena.

Honen harira, Euskal Herriko agertoki politikoan aldaketa inportanteak eman dira, horien artean, 2011ko udazkenean antolatu den Aieteko Konferentzia eta ondotik ETA erakundeak iragarri duen ekintza armatuen behin betiko bukaera.

"Zutik Euskal Herria"ren ardatz zentrala Independentzia eta Sozialismoaren aldeko borroka soilik bide politiko eta demokratikoetatik eramateari begira finkatzen da. Horretarako indar-metaketa eta elkarlana osagai politiko nagusi bezala kokatuak direlarik, aitzinean ditugun bi Estatuari begira indar-harreman indartsuago bat finkatzeko xedez.

Iparraldean berean gauzak franko aldatu dira epe laburrez. "Zutik Euskal Herria", hemengo hiru probintzien errealitateari egokitu ondoan – "Xutik Euskal Herria" lanketa osatuz - eskema berriaren araberrako urratsak ematen hasi gara, lehen emaitza inportanteak erdietsiz. Horien artean mugimendu abertzale eta ezkeriar guzien artean adostu dugun Akordio Estrategikoa.

Honenbestez, gaur gairatutzat jotzen dugun fase politiko batean Batasuna sortu zela konstatatzea behartuak gara. Fase politiko hori bukatua denez, agortutzat jo behar dugu ere Batasunaren aroa.

Sigle ez dute garrantzirik. Inportanteena da gure borrokari eraginkortasuna bermatzea eta hori segurtatzeko beharrezkoak ditugun tresnak aro politiko bakoitzari egokitzea. Helburu honi erantzuterat dator Batasunaren disolbatzearen pausoa. Fase politiko berri bat eraikitzen hasi gara, bide hortan segitzeko borondatea dugu, eta horretarako Batasuna ez da gehiago tresna politiko egokia.

Izan direlako gara, garelako izango dira : Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren ibilbide osoa asumituta eta gure eginez, parametro egokitu batzuen araberran gure borrokak aitzina darraiela irmoki baieztatzen dugu eta hori gure azkeneko helburuak lortu arte : Euskal Herria askea, batua, euskalduna eta sozialista!

**Gora gu ta gutarrak ! Gora Ezker Abertzalea !**

Baiona, 2013ko urtarrilaren 3an



## Conférence de Presse de dissolution

Le Pays Basque connaît une nouvelle phase politique. Pour atteindre cette phase un certain nombre d'ajustements ont eu lieu dans les organisations de la gauche abertzale ces derniers mois. Entre autres la disparition de Segi et la dissolution d'Askatasuna. Dans ce court texte, nous vous annonçons la dissolution de Batasuna qui est un évènement dans la même logique.

### **2001-2012 : Onze ans de parcours**

Nous avons créé Batasuna en 2001, à l'époque de Lizarra/Garazi ; à cette époque la gauche abertzale avait pris l'orientation politique de s'organiser au niveau du Pays Basque dans son ensemble, d'où l'étape importante de la création de Batasuna.

Le développement d'une stratégie de construction nationale demande forcément une organisation de niveau national, c'est le sens principal de la décision que nous avons pris en 2001 de créer Batasuna. Nous croyions, et nous croyons toujours, que la construction d'une stratégie nationale nécessite une connaissance mutuelle en passant par la mise en commun des lectures politiques de façon à pouvoir construire une stratégie globale pour les 7 provinces, tout en étant adaptée à la réalité de chaque territoire.

L'organisation de Batasuna en Pays Basque nord a marqué l'évolution du mouvement abertzale ces dix dernières années. La création de Batasuna a eu lieu à un moment difficile : au lendemain de la rupture du processus de Lizarra/Garazi ; et certains secteurs ont voulu nous attribuer la responsabilité de la division du mouvement abertzale. Mais il n'y a jamais eu aucun doute sur l'intensité de notre engagement militant et sur notre honnêteté. Toute notre militance a été guidée par le souci de mettre un projet abertzale et de gauche cohérent.

Malgré des hauts et des bas, l'une de nos préoccupations a été de restaurer une ambiance propice au travail en commun. Dans ce but, de concert avec nos partenaires, nous avons tout fait pour installer un référent politique commun dans le paysage politique. Ce qui nous a permis la naissance d'EHBAI.

Dans la voie de la concrétisation de notre projet, le « Zazpiak Bat », nous avons défendu sans relâche le besoin d'une stratégie efficace en faveur de la construction nationale qui puisse dépasser la division nord/ sud. Nos contributions aux évolutions de la situation politique en Pays Basque Nord ont été diverses. Pour n'en citer qu'une : la remise à jour en 2007 de la revendication historique d'un statut d'Autonomie pour Iparralde et le travail de sensibilisation mené avec d'autres forces abertzale autour de cette revendication restera pour nous l'une des plus importantes.

Dix ans après la création de Batasuna, le panorama en Iparralde a énormément changé. Pour se rendre compte du chemin parcouru par les revendications abertzale au sein de la société au sens large, il suffit de regarder l'évolution de la revendication institutionnelle. En ce qui concerne la perspective globale du Pays Basque, nous avons réussi à ce que la perception d'un espace politique commun entre Iparralde et Hegoalde se propage bien au-delà du spectre des abertzale.

Batasuna a apporté sa pierre à l'édifice de la construction d'Euskal Herria. Et c'est pour cette raison que nous avons reçu une réponse sans équivoque de la part de l'État français. Car quand on se penche sur le chemin parcouru comment ne pas évoquer tous les coups durs répressifs que nous avons subis en Iparralde ? : diverses opérations policières, de nombreuses arrestations de militants, de multiples incarcérations, jusqu'au dernier évènement répressif : l'arrestation et l'incarcération d'Aurore Martin.

### **Les phases politiques nouvelles demandent de nouveaux outils.**

Après le dernier processus de négociation, la gauche abertzale a mené en son sein un profond débat qui s'est concrétisé par un renouvellement de son schéma de travail : entériné par la motion *Zutik Euskal Herria*.

Grâce à cela, le panorama politique du Pays Basque a connu de très importants changements. Parmi ceux-ci la Conférence pour la paix d'Aiete organisée à l'automne 2011 et, à sa suite, la décision de l'ETA de la cessation définitive de ses activités armées. L'axe central de *Zutik EH* consiste à affirmer que nous atteindrons l'indépendance et le socialisme par les seuls moyens de la lutte politique et démocratique. Dans cette perspective, l'accumulation de forces et le travail en commun ont pour visée d'établir un rapport de forces bien plus puissant avec les États français et espagnols.

En Pays Basque Nord, de nombreuses choses ont également changé en peu de temps : après avoir adapté *Zutik Euskal Herria* aux 3 provinces en travaillant la version *Xutik Euskal Herria*, nous avons commencé à mettre en place des étapes issues du nouveau schéma de travail. Nous avons ainsi obtenu les premiers résultats importants et parmi eux l'accord stratégique signé par tous les mouvements abertzale de gauche.

Nous sommes obligés de reconnaître que la phase politique dans laquelle nous avons créé Batasuna est dépassée. Cette phase politique étant close, il apparaît aussi que le temps de Batasuna est révolu.

Les sigles n'ont pas d'importance. Le plus important est de garantir l'efficacité de notre lutte et d'assurer que les outils politiques dont nous avons besoin sont adaptés au moment politique. C'est pour répondre à cette nécessité que nous faisons le choix de dissoudre Batasuna. Nous avons commencé à construire une nouvelle phase politique, nous avons la volonté de continuer dans cette voie, et l'outil politique adéquat pour se faire n'est plus Batasuna

*“Nous sommes parce qu’ils nous sommes”* : en assumant libération nationale et en le notre ferme volonté de nouvelles formes et cela objectifs politiques : un Pays Basque libre, uni, socialiste et bascophone.



**batasuna**

*ont été, ils seront parce que le parcours du mouvement de faisant nôtre, nous affirmons continuer la lutte sous de jusqu’à l’obtention de nos*

Vive la gauche abertzale !

Bayonne le 3 janvier 2013